

DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN

urtiaren 31etik azaroaren 8ra - 2003 - 31 de octubre al 8 de noviembre

Fantasiarazko eta Belurrezko Zinemaren XIV. Astea

XIV Semana de Cine Fantástico y de Terror

14th Horror and Fantasy Film Festival



Antolatzailea / Organizador / Organisateur



Patroiz / Patrocinadores / Sponsors



Partenariak / Colaboradores / Partners



Donostian, 2003an

AURKIBIDEA

1. SARRERA

2. AHOZKO ERABILERA

- 2.1. Ekitaldi nagusiak
- 2.2. Prentsaurrekoak
- 2.3. Aurkezpenak
- 2.4. Filmeak
- 2.5. Jendaurreko zerbitzuak

3. IDATZIZKO MATERIALA

- 3.1. Liburuak
- 3.2. Programazio liburuxka
- 3.3. Programazio taula
- 3.4. Beldurrezko astea euskaraz
- 3.5. Beldurrezko astea unibertsitatean
- 3.6. Euskuorriak, sarrerak, postalak, ...
- 3.7. Kartelak
- 3.8. Web orria
- 3.9. Prentsarako materiala
- 3.10. Errotulazioa

4. ERAKUSKETAK

5. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

1. SARRERA

BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkartea, euskararen erabilera areagotzea ardatz duela, Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinemaren astean hizkuntza erabileraren neurketa egin du aurten ere. Donostiako aisialdian eragina duten beste ekintza nagusietan egin ohi dugu: Aste Nagusia, Jazzaldia, Zinemaldia eta Musika Hamabostaldia.

Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinemaren astean antolatzen diren ihardueratan euskararen erabilera idatzia zein ahozkoa areagotzea du helburu Bagerak; hau da, Beldurrezko eta Fantasiatzko zinemaren astean euskararen presentzia normalizatzea.

Garrantzitsua da oso euskararen erabilera normalizatzea egunerokotasunean. Era berean, gizarteari eskaintzen zaizkion aisialdirako kultur ekitaldietan euskaren presentzia areagotzea oso garrantzitsua da. Euskara hizkuntza ofiziala da eta merezi duen tokia eman behar zaio.

2. AHOZKO ERABILERA

2.1. Ekitaldi nagusiak

Inaugurazio ekitaldiaren aurkezpena Los Louviers taldearen eskutik izan zen. Aurkezpean egindako elkarrizketetan euskara pixkat bat sartu zuten, hala ere, ez zen guztiz orekatua izan. Adibidez, epaimahaikideak aurkeztean, e.a. ez zuten euskara erabili. Gizon frantsez batek esandakoak ere gaztelerara soilik itzuli zuten.

Klausura ekitaldia, Santiago Segurak aurkeztu zuen, berak bakarrik eta den-dena gaztelera hutsez. Sariak banatu eta saridunek ingelesa, gaztelera eta frantsesa besterik ez zuten erabili. Euskaraz ez zuten ezta “gabon edota “Donostia” ere esan.

2.2. Prentsaurrekoak

Osteguna 6an izandako bi prentsaurrekoetan, euskara hasieran eta agur moduan soilik erabili zen. Lehenengoan, J.L. Rebordinosek lehen hitzak euskaraz egin zituen eta ondoren pixkat zabalago gazteleraz, ondoren aurkezten ari zen filmaren zuzendariari eman zion hitza, honek ingelesez egiten zuen eta itzultzaileak gaztelerara itzultzen zuen. Egindako galdera guztiak gazteleraz izan ziren eta erantzunak ere gaztelerara izan ziren itzuliak. Bigarren prentsaurrekoari hasiera emateko Rebordinosek hasiera labur bat egin zuen euskaraz, baina segituan gazteleraz hasi zen, gonbidatuak galiziarrak ziren eta guztia gazteleraz egin zen.

Oro har, prentsaurre guztiek eskema berbera izan dute. Euskaraz azpigitulaturako filme eta haurrentzako bikoiztutako bi filmeei buruzko bi prentsaurreko izan ziren. Lehenengoa, batez ere euskaraz izan zen. Bigarrena, haurren filmeak aurkezteko prentsaurrea euskara hutsez izan zen, amaieran laburpen bat egin zen gazteleraz.

2.3. Aurkezpenak

Filmeek aurkezpenak izan dituztenean, orohar gazteleraz izan direla esan daiteke. Aurkezleak Les Louviersekoak izan direnean, beraien elkarrizketetan euskarazko esaldirik egin badute ere, ez da guztiz orekatua izan. Zuzendariak hitza hartu izan duenean, gehinetan elebrietan egin izan du aurkezpena. Bestalde, aurkezpenetan filmeetako zuzendariak ere izan dira, eta gazteleraz ez zen hizkuntza batean hitz egin dutenean itzultzaileak gaztelerara soilik egin du itzulpena.

2.4. Filmeak

Azpigitulu gehienak gazteleraz ziren, hainbatetan ingelesez ere ageri ziren.

Aurten, 74 filmetatik, euskaraz azpigitulaturako filmeak bederatzi izan dira, euskaraz bikoiztutako bi pelikula izan dira haurrentzat.

Helduentzako filmeak, John Carpenter eta Europako heroiak eta superheroiak sailekoak izan dira. Umeentzako euskaraz bikoiztutako bi filmeak, “Prop & Berta” eta “Sorgin bat etxean” izan dira.

2.5. Jendeaurreko zerbitzuak

Jendeari erantzuteko zerbitzuetan nolako harrera jaso ahal izan dugu neurtu nahi izan dugu.

Hainbat ekitalditan zeuden azafatekin euskaraz egin ahal izan da, baina “Bizirik daude” filmeak egondako matxuraren berri emanaz hitz egin zuen arduradunak gazteleraz soilik egin zuen.

Bestetik, Kultur Udal Patronatura deitu izan dugunean, gehienetan euskaraz egin digute arreta, hala ere, gazteleraz ere hartu izan digute.

3. IDATZIZKO MATERIALA

Orohar idatzizko materiala elebietan idatzirik dagoela esan daiteke. Dena den, jaso dugun idatzizko materiala banan bana aztertu dugu:

3.1. Liburuak

3 argitalpen eskuratu ditugu, hauetaz gain, beste bertsiorik edo libururik izan bada ez dugu jaso.

- “John Carpenter horror en B mayor” liburua dena gazteleraz dago.
- “Flash-Back. Homenaje a, Carlos Giménez” liburua. Biltzen diren komikien dialogoak kontuan hartu gabe ere, guztia gaztelera hutsez dago.
- “Fantasiatzko eta Beldurrezko zinemaren XIV. Astea” ren liburuan, asteen zehar izango diren filme eta bestelako ekintzei buruzko informazioa azaltzen da. Filmeei buruz datorren informazioa hirueletan dago, hala ere, alboan datorren fitxa teknikoa gazteleraz dago. Gainontzeko ekintzei buruzko informazioa ere hirueletan dago. Informazioaz gain, hainbat iragarki edo filmeen kartelak daude. Zortzi filmeen kartel daude, bat euskaraz eta gainontzekoak, gehienak gazteleraz. Honetaz gain, iragarki batzuk badira, bakar batean ere ez da euskara azaltzen, ingelesa eta gaztelera dira erabiltzen diren hizkuntzak.

3.2. Programazio liburuxka

16 orriko liburuxka honetan, filme bakoitzaren azalpen labur bat dator, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz, bata bestearen itzulpena. Filmeen izenburuak, jatorrizko hizkuntzan azaltzen dira.

3.3. Programazio taula

Triptiko formatoan, aste osoko programazioa modu grafikoan azaltzen da. Informazioa guztia elebietan dago. Gazteleraz dagoen, Xenon Computer-en iragarki txiki bat izan ezik. Triptikoa jasota, kontrazal bezala film baten iragarkia dator, izenburua jatorrizko hizkuntzan eta bi hitz gazteleraz daude.

3.4. Beldurrezko astea euskaraz

Astean zehar euskaraz azpigitulatuak izango diren filmeak biltzen dituen 6 orriko liburuxka da. Azalean euskara gailentzen da, hirueletan dagoen kartelaz gain, izenburua euskaraz baitago. Barruko orrietan, filme bakoitzari buruzko informazioa euskaraz soilik dago, baita atzean datorren filme hauen programazioa.

3.5. Beldurrezko astea unibertsitatean

EHUn eskainiko dituzten filmeak biltzen dituen liburuxka da. Filmeen izenburua jatorrizko hizkuntzan, gainontzekoa, azala, kontrazala eta barruko informazio guztia elebietan dago.

3.6. Eskuorriak, sarrerak, postalak, ...

Eskuorri bat jaso dugu, "Historias para no dormir" izenburukoa. Informazioa elebietan dago, gaztelera dagoen izenburua izan ezik.

Haurren bi filmeak ikustera joateko gonbidapen eta sarrerak euskara hutsez daude alde batetik, eta bestetik, Fantasiatzko eta Beldurrezko zinemaren XIV. Astea elebietan dator, antolatzaile eta babesleen logoekin batera.

Sade eta Donostia kulturak ateratako gainerako filmeetarako gonbidapen eta sarrerak (txikiak eta horiak direnak), gaztelera hutsez daude.

Erakusketak iragartzen dituzten 5 postal daude, bakoitzeko bat: "La Bola de cristal", "Doris Kloster", "Monstruos del subconsciente colectivo", "El arte invisible Emilio de Ruiz" eta "Carlos Giménez maestro del fantástico". Guztietan informazioa elebietan dago, izenburua izan ezik. Gehienak jatorria erdalduna dutenez, gaztelera dute eta beraz, lehenengo begiradan gaztelera nagusitzen da.

Zortzi fanzine daude aurtengo topaketan. Bakarra eskuratu dugu eta gaztelera hutsez dago, hala ere, euskaraz kaleratutako fanzinerik ez dago.

Fanzine, film luze eta laburren lehiaketan bozka emateko tiratan informazioa hirueletan dago

3.7. Kartelak

Guztira 8 kartel desberdin ikusi ditugu: Kartel nagusia, John Carpenterrena, Heroes y superheroes, eta erakusketa bakoitzeko bana. Guztietan informazioa elebietan dago, baina postaletan bezala batzuetan izenburua gaztelera denez, gaztelera gailentzen da.

3.8. WEB orria

Interneteko ataria du Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinemaren Asteak. www.donostiakultura/terror klikatu eta hiru hizkuntzetan egiteko aukera ematen da, euskara, gaztelera eta ingelesa, aipatutako ordenean.

3.9. Prentsarako materiala

Prentsaurrekoetan eskuratu izan dugun materiala bildu dugu. Filme batzuei buruzko informazioa, eguneko programazioa biltzen dituzten txostenak edota erakusketei buruzko informazioa zabalduz orritxo bat, besteak beste.

- “The Shine” filmeari buruzko txostenean, lehengo orrialdean, parrafotxo txiki bat dago elebietan eta hurrengo hiru orrialdeak ingelesez daude (fitxa teknikoa, zuzendariaren bibliografia,...).
- “Bubba ho-tep” filmeari buruz, lehenengo gazteleraz eta ondoren euskaraz, bakoitzean 3 orrialdetan, informazioa azaltzen da. Jarraian, hamaika orrialdetan, fitxa teknikoak eta informazio zabalagoa dago ingelesez.
- “Skinned deep” txostenean, dagoen informazioa guztia hirueletan dago. Bestetik, beste bi orrialde daude ingelesez filme honen inguruan.
- “Battle Royale II Requiem” filmearen txostena hirueletan dago eta bukaeran, fitxa teknikoa ingelesez.
- “La matanza caníbal de los garrulos lisérgicos” pelikula: filme hau duela 10 urte Donostian aurkeztu zenean, prentsan ateratako artikuluen bilduma banatu dute, “Euskaldunon Egunkaria”ko bat izan ezik guztiak gazteleraz daude.
- Erakusketa bakoitzaren lekua, ordua eta datak azalduz orrialde bat ere eskuratu dugu, dena elebietan dago.
- Egun bakoitzeko, txosten bana dago, non eguneko filma, erakusketa edo bestelako ekitaldien programa biltzen den. Elebietan dagoela esan daiteke. Hala ere, izenburuak jatorrizko hizkuntzan daude soilik eta hainbatetan, ordua eta iraupena (horas, minutos) gazteleraz soilik azaltzen da.
- Prentsarako emanaldiak eta prentsaurrekoen berri emanaz banatutako zerrenda elebietan dago.

Bestetik, e-posta bidez bidalitako prentsa oharretan, informazioa euskaraz eta gazteleraz jaso zitekeen, hala ere, mezuetan idatzitakoa (Adib.: Os adjuntamos,...) gaztelera hutsez.

3.10. Errotulazioa

Zine areto edota erakusketa toki eta bulegoetako ateetan ipinitako ohar edo txartelak elebietan ikusi ditugu.

4.ERAKUSKETAK

Behatutako erakusketa guztietan, sarreran panelak egoten dira, eta denak elebitasuna mantentzen dute.

- Alderdi Ederreko udal liburutegia: “Carlos Giménez, maestro del fantástico” erakusketa. Barruko hiru panel eta bitrinetako txarteltxoak hirueletan daude. Bestetik, liburutegiaren sarrerako eta barruko paretan zintzilik dauden komikiak berezko hizkuntzan daude, gazteleraz, eta hauen azpian dauden txarteltxoak ere gazteleraz daude (Adib.: Página 1 del episodio *Cartas*)
- Kursaal Kasinoa: “Dorik Kloster” erakusketa. Argazkiak zeuden bakarrik, eta hauek ez ikutzeko oharrak hirueletan zeuden. Bertan zegoen langileak egindako galderari gazteleraz erantzun zuen.

- Udal Liburutegiko Ekitaldi Aretoa: “el arte invisible de Emilio Ruiz” erakusketa. Paneletako informazioa hirueletan zegoen, izenburuak izan ezik, filmearen jatorrizko hizkuntzan zeuden. Telebista batean ikusgai zegoen bideo batean azpтитuloak gaztelera hutsez azaltzen ziren. Azkenik, bertako langilearekin euskaraz txukun egiteko aukera zegoen.

5. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinema astean euskararen erabilera areagotzea du helburu Bagerak; hau da, Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinemaldiaren euskararen presentzia normalizatzea. Horretarako ahozko eta idatzizko materiala jaso eta aztertu egin dugu.

Idatzizko materialari dagokionez, oro har elebitasunari heltzen zaiola esan daiteke eta gainera erabiltzen den euskara txukuna da. Beraz, zoriontzekoa da idatzizko materialean egiten den ahalegina eta BAGERAK antolatzaileak animatu nahi ditu horrela lan egiten jarrai dezaten eta bide batez, izandako hutsuneak hobetzera.

Erakusketei dagonienez, hirueletasunerako joera dagoela esan daiteke. Hala ere, hainbat hutsune topatu ditugu ditugu.

Ahozko hizkuntzari dagokionez, lan handiagoa dago egiteke. Batetik, euskaraz azpтитulatutako edo bikoiztutako filmeen kopurua handituz. Aurten, 74 filmatik 9 euskaraz azpтитulatuak izan dira eta haurrentzako bikoiztutako bi pelikula izan dira. Beraz, oraindik alde handia dago, nahiz eta Asteak dituen zailtasunez jabetzen garen.

Bestetik, aurkezpenetan eta ekitaldi berezietan euskararen presentzia areagotzeko irtenbideak bilatu behar direla uste dugu. Hainbatetan, aurkezpen motzak edo interbentzio batzuk izaten dira, baina eskas gelditu ohi dira.

Azkenik, prentsaurrekoetan euskararen erabilera oso urria izan da, aurkezpen labur batean gelditzen baita. Beraz, horietan ere euskara erabiltzeko aukera eskaintzea proposatzen du BAGERAK.

Oro har, eta aurreko urteetako ekitaldiekin alderatuta aurrerapausuak antzeman ditu BAGERAK euskararen erabileran eta antolatzaileak zoriundu nahi ditu egindako ahalegina dela eta. Hala ere, datozen ekitaldietan dauden hutsuneak estali eta euskararen normalkuntzan aurrerapausuak ematen segi dezaten animatu nahi ditu BAGERAK.

Pedro Egaña 2- 1. Esk.

20006 Donostia

943 467181

**Donostiako
Euskaltzaleen
Elkartea**



bagera@bagera.net